



BOOKTEGI

RICHARD BACH

Jon
Salvatore
Kaio

itzulpena: mikel asurmendi



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

RICHARD BACH

Jon Salbatore Kaio

itzulpena: Mikel Asurmendi

Gure barnean daramagun

benetako Jon Kaiori

Lehen partea

Egungentia heldu zen, eta eguzki berriak itsaso barearen uhinak urre-gorri karaz margotzen zituen.

Arrantza-ontzi bat itsasertzetik kilometro batera palastatzen zen. Halako batean, ahotsak airea urratu zuen Janarietako Saldoari deika, eta milako kaio pilatu zen marmarka eta liskarrean janari apur bat lortzearren.

Harat-honateko ohiko egun bat hasi zen.

Hala izanik ere, Jon Salvatore Kaio txalupez eta hondartzez harago zebilen jardunean, ekinean. Uretik hogeita hamar metrora apaldu zituen oin zabalduak, mokoa altxatu zuen, eta hegalk bihurtura zailean eta mingarrian atxikitzen ahalegindu zen, baitezpadako saioa hegaldi pausatu baten erdiesteko. Abiadura gutxitu zuen haizea aurpegian xuxurla baino ez zela sentitu zuen arte, ahalik eta ozeanoak, behe-beherean, erabat baretua irudi izan zuen arte. Begiak txilotu zituen basati baten antzera, arnasari eutsi zion, bihurtura hura are... zentimetro bat... gehiago... bortxatuz. Lumak kiribildu zitzaizkion, trabatu zen eta erori.

Kaioak, ongi jakina denez, ez dira inoiz trabatzen, ezta gelditzen ere. Eurentzat, hegaldi baten erdian gelditzea lotsagarria da, ohore-galtzea.

Dena dela ere, Jon Salvatore Kaio, lotsatu barik, behin eta berriz hegalk bihurteta neketsu eta dardartsu hartan hedatzen zituenean –geldiro, geldiro, eta trabatuz behin eta berriro– ez zen edozein txori.

Kaioen gehiengoari ez dio axola ikasteak, hegan egiteko beharrezkoak diren oinarrizko arauak izan ezik: otorduen eta hondartzen arteko joan-jinak, barbarako. Kaioen gehiengoarentzat, hegan egiteak ez dauka garrantzirik, jateak baizik. Kaio honi, hala ere, axola zitzaiona ez zen

jatea, hegan egitea baizik. Ezer baino gehiago munduan, Jon Salvatore Kaiok hegan egitea maite zuen.

Pentsatzeko modu hori, jabetu zen, ongi jabetu zenez, ez da txit egokia gainerako txorien artean ezaguna izateko. Gurasoak ere, egun osoak bakarrik iragaten zituela ikustean, desilusionatu ziren: Jonek ehundaka planeatuak egiten zituen altuera apalean, ekin eta ekin, saiakuntzan.

Jon Salvatore ez zen, artean, hainbat gauzez jabetua, adibidez, ur gainean hegan egiten zuelarik –bere hego-luzeraren erdiaren baino altuera apalagoetan–, nolatan geldi zitekeen airean denbora luzaz esfortzu handirik egin gabe. Izan ere, bere planeatuak ez ziren usaiako bustialdiarekin amaitzen zangoak itsasoan pausatzerakoan, ostera, gorputzaren albo-albora era aerodinamikoan zeramatzan zango tolestuek uhara leuna uzten zuten haren gibelean. Nola nahi den ere, zangoak barnebidurik lurreratzen hasi zenean –geroago urraska-urraska hondartzetan berrikusten zuena– are gehiago desanimatu ziren gurasoak.

– Zergatik, Jon, zergatik? –galdetzen zion amak–. Zergatik ez haiz gainerakoak bezala izaten ahal, Jon? Zergatik ez dituk lagatzen ur-arraseko hegalaldiak albatrosentzat edota pelikanoentzat? Zergatik ez duk jaten? Seme, luma eta hezur besterik ez haiz!

– Ez dit axola hezur eta luma ez beste izateak, ama. Airean hau edo hori egiteko gauza naizenentz jakin gogo besterik ez daukat. Hori baino ez dut jakin nahi.

– Beha ezak, Jon –erran zion aitak, samur antzean–. Negua hurbil diagu. Arrantza-ontzi gutxi egongo da eta laster gainaldeko arrainak hondaleetara joanak izanen dituk. Ikasi nahi baduk, ikas ezak janariaz eta berau erdiesteko moldeaz. Hegan egitearena hagitx polita da, baina ez duk planeatu bat jaten ahal. Ba al badakik? Ez ahantz jatea dela hegan egiteko arrazoia.

Jonek onetsi zuen obedienteki. Ondorengo egunetan gainerako kaioak bezala jokatzen saiatu zen; benetan saiatu ere, txio egiten, arrantza-ontzi eta kaiaren inguruan Saldoarekin borrokari ekiten, arrainketa eta ogiketa bere burua habailduz. Ondorio handirik erdietsi gabe, halere.

“Alferrik ari naiz”, pentsatu zuen, eta nahitara, atzetik xaxatzen zebilkion kaio zahar eta goseti bati liskartutako antxoak erortzen utzi zuen. Denbora hau guztia, hegan egiten ikasten erabil nezake. Hainbat eta hainbat dago eta, ikasteko!

Denbora luze iragan barik, Jon Kaiok berriz ere itsas zabalerantz jo zuen, goseti, zoriontsu, ikasteari emana.

Abiadura hartu zuen ikasgaitzat, eta aste bat jardunean iragan ostean kaio bizkorrenak baino gehiago ikasi zuen abiaduraren gorabeheraz.

Hirurehun metroetan ari zela, indar guztiaz hegaldaka, burua amildu zuen uhinetarantz latz eta gartsu, eta ikasi zuen zer dela-eta kaioek ez duten holakorik egiten, hots, zergatik ez duten beren burua zut erortzen uzten. Sei segundo besterik ez zuen behar izan, orduko ehun kilometrotan hegan egiteko, hegal altxatuak gehiagorako ematen ez duen abiaduran hain zuzen ere.

Behin eta berriz gertatu zitzaion gauza bera. Bere trebetasuna osoki erabili arren, kasu handia eman arren, abiadura bizian zihoanean, kontrola galtzen zuen.

Hirurehun metrora igo zen. Lehenik, gorantz, indar guztia erabiliz, eta segidan, burua bertikalean makurtzen gorputza zut jartzeraino. Alabaina, ezker hegala altxaturik atxikitzen saiatzen zen bakoitzean, alde horretara jirabiraka jaisten zen bortizki, eta hala berean, orekan jarraitzeko eskuineko hegala altxatzen saiatzen zenean tximista kontrolaezinak antzo amiltzen zen.

Hegal hori altxatzean askoz arduratsuagoa izan beharra zeukan. Hamar aldiz saiatu zen, eta hamargarrenean, orduko ehun kilometroak gainditzean, uraren kontra joz akitzen zen. Lumak ordurako kontrolagaitz bihurtzen zitzaizkion.

Urez blai, koska hegalak abiadura bizian geldo-geldoan eustean zegoela pentsatu zuen; orduko hirurogeita hamarreraino hegalei gogotik ekin –erran zion bere buruari– eta orduan, hegalak geldi-geldirik laga behar ditut.

Zazpiehun metroko altueratik saiatu zen berriro bertikalean jaisten, mokoia beheiti buruz ipiniz, eta hara, orduko hirurogeita hamar kilometroak gainditu zituen momentuan, hegalei eutsi zizkien erabat zabaldua eta finkatuta. Hamar segundotan tximisten antzera zihoan, orduko ehun eta hogeitamar kilometroak gaindituta eta hegaz. Kaioen abiaduraren munduko marka erdietsi zuen Jonek.

Hala eta guztiz ere, garaipenak gutxi iraun zuen. Bere bertikaltasunetik ateratzen hasi zen instantean, aurreko hondamen ikaragarri eta kontrolaezin berean amildu zen. Jakina, ondorioak, orduko ehun eta hogeita hamar kilometrotan, lehergarriak izan ziren. Jon Kaio desintegratu zen, eta harri gogorraren tankerako itsasoaren aurka jo zuen.

Bere senera etorri zenean, ilunduta jada, llargiaren argipean eta ozeanoan abandonaturik kausitu zuen bere burua. Bere hegal narras eta zapaztoek berun lingoteak ziruditen, alta bada, ur jotzeak sorrarazten zion arrangura gaitzena. Hondalera arrastatua izateko pisutsua izatea desio izan zuen, indarge, harekin guztiarekin amaitzeko barren desio zuen.

Urperatzen zen heinean, ahots ozena eta arraroa durundatu zen bere baitan. “Ez dago saihesterik. Kaio bat naiz. Izatez mugatua naiz. Hegan egitearen gainean horrenbeste ikastera behartuta banengo, nabigazio kartak nituzke burmuinik izan beharrean. Abiadura bizian hegan egitea balitz nire patua, aztore baten hegal laburrak nituzke, eta arrainak jan beharrean, saguak jango nituzke. Gure aitak arrazoia zuen. Ahantzi behar ditut zozokeria horiek.

Etixerantz hegan egin behar dut, Saldoaren arrimuan, baita naizen bezalakoa izateaz pozik izan ere: kaio pobrea eta mugatua naiz”.

Barne ahotsa ahituz joan ahala, haren menera makurtu zen Jon. Gauak iragan bitartean hondartza da kaioaren lekua. Une horretatik beretik kaio arrunt ez beste izatea promes egin zion bere buruari. Horrela, mundu guztia zorionsuagoa sentituko zen.

Ur ilunetik altxatu zen, ahitua, eta lehorrerantz abiatu, apal altueran, den mendreneko esfortzuaz, hegan egiteari buruz ikasi zuenaz eskertua.

Bada, ez! –pentsatu zuen—. Bukatu dut izateko manera horrekin, ikasi dudan guztiarekin bukatu dut. Kaioa naiz, beste edozein kaio bat bezalakoa eta, halakoxe izaki egingen dut hegan.

Horrela izanik, hogeita hamar metrora goratu zen, erresumindua, eta hegazkadak areagotu zituen ur-bazterrera arribatzearen borrokatuz.

Saldoko beste edozein bat bezalakoa izateko erabakiak erosoago egoten sentiarazi zion. Engoitik ez zeukan ikastera behartzen zuen indarrari lotzeko arrazoirik, ez zen desafio gehiagorik izango, ezta porrotik ere. Pentsatzeari uzteak laketu zuen, eta hala berean hondartzako argitarantz ilunpean hegaldatzeak.

“Iluntasuna!” oihu egin zuen alarmaturik ahots ahulak. “Kaioek ez dute sekula iluntasunean hegan egiten!”. Jon ez zen aditzeko ernai. “Laketgarria da”, pentsatu zuen. Ilargia eta argiak ur gainean dirdiran, iluntasunean bideska argitsuak trazatuz, den-dena hain baketsu eta baretsua...

“Jaitsi, jaitsi hadi! Kaioek ez dute sekula iluntasunean hegan egiten! Iluntasunean hegaldatzeko sortua izan bahintz, hontzaren begiak hituzke! Burmuinik ukan beharrean, nabigazio kartak hituzke! Aztore baten hegal laburrak!”.

Han, gauean, hogeita hamar metroko altueran, Jon Salvatore Kaiok kliska egin zuen. Bere mina, bere erabakiak aienatu ziren.

“Hegal laburrak! Aztore baten hegal laburrak!”.

“Horra soluzioa! Zein zozoa izan naizen! Hegal tipi bat besterik ez dut behar, ene hegaletako alde handiena tolestea, eta hegan egitea, besterik ez. Hegal laburrak!”.

Itsaso beltzaren azaletik zazpiehun metrotara igo zen, heriotzan edo porrotean instant batez pentsatu gabe, hegal-aurreak gorputzaren kontra bildu zituen azkarki, daga tankerako puntta zorroztuak nasai laga zituen haizetara zabalduak, ageri-agerian, eta zut erori zen.

Haizeak orroz astindu zuen bere burua, ikaragarriro. Orduko ehun kilometrora, ehun eta hogeita hamar, ehun eta laurogei eta are zaluago oraindik. Oraingoan, ehun kilometrora hegaletako tirandura ez zen antzinako ehunekoan bezain larria. Hegal punten higidura minimoaz laxatu zuen jaitsaldia gradualki, eta arrapalada bizian irten zen uhinetara buruz, kanoi bala gris baten antzo ilargipean.

Begiak haizearen kontra naretu zituen, marra txiki bitan bihurtzeraino, baita poztu ere. Orduko berrehun kilometrora! Eta kontrolpean! Bostehun metrotik zuzen beheiti abiatu beharrean, mila metrotik ekiten badiot, zenbateraino iritsiko al naiz..?

Arestiko deliberoak ahantzi zituen, haize handiak harrapaturik. Ez zen bere buruari egindako promesak haustearren hobendun sentitzen. Holako promesak bizitza arrunta onartzen duten kaioentzat besterik ez dira. Bere apendizaiari perfekzioa ukitu duen batek ez dauka promes mota horren beharrik.

Egunsentian Jon Kaio berriro ari zen. Mila metrotik arrantza-ontziak puntuak ziren ur bare eta urdinaren gainean, eta Janarietako Saldoa, berriz, hodei indarge eta funsgabea.

Bizirik zegoen, eta doi-doi dar-dar egiten zuen pozarren, harro zegoen beldurra kontrolpean zeukalako. Orduan, inolako zeremoniarik gabe, hegal-aurreak kuzkurtu zituen, zabaldu zituen bere punta labur eta angelutsuak, eta itsasorantz zuzendu zen azkar. Bi mila metroak iragatean atzeman zuen abiadura gehiena, haizea pareta ozen taupadatsua zen, hain sendoa izan ere, ezin zuela arintasun gehiagoz abantzatu. Beheiti buruz hegan egiten zuen engoitik, zuzen-behera, orduko hirurehun eta hogeit hamar kilometrora. Tua irentsi zuen, eta hegalak abiadura horretan zabalduz gero birrinduko zela ohartu, bere burua milioi bat partikuletan zati-zati eginda ikusi zuen. Abiadura manua zen ordea, abiadura poztasuna zen, abiadura edertasun aratza zen.

Hirurehun metrotan hasi zen bertikaltasunetik ateratzen, haizea berealdikoa zen, hegal puntak zirriborrotsuak eta suntsitze zorian zeramatzan, bere bidean, orduantxe, arrantza-ontzia eta kaio-piloa deseratzen eta ugaltzen ziren kometa baten arintasunez.

Ezin izan zuen gelditu, oraindik ez baitzekien nola biratu abiadura horretan.

Kolisioa heriotza litzateke istantean.

Horiek horrela, begiak itxi zituen.

Doi-doi egunsentiaren ondoren gertatu zen, Jon Salvatore Kaiok orduko hirurehun eta hemezortzi kilometrora erauzi zuen bere burua zuzenean, Janarietako Saldoaren erdi-erdian, begiak itxita, haizearen eta lumen orroek asaldatuta. Probidentziarako Kaioak bere alde izan zuen behingoarengatik, inor ez baitzen hilik gertatu.

Amaieran, bere mokoak zerurantz seinalatu zuela, oraindik ere berrehun eta berrogei kilometrora burrunbatzen zuen. Hogeita hamarrera murrizterakoan eta hegadak berriz zabaltzean, arrantza-ontzia otapur bat bezain tipia zen itsasoan, mila metro beherago.

Garaipena zen bere asmo bakarra. Abiadura maximoa! “Orduko hirurehun eta hogeikilometrotan kaio bat!”. Aurkitutakoa itzela zen, Saldoaren historian une handiena, une singularrena, eta une berean aro berria hasi zen Jon Kaiorentzat. Bakartasunerantz hegaldatu zen, praktikatzera, eta jarraian hiru mila metrotik hegadak tolesten lanean jardun zuen, bere zut erorketatik ateratzeko jira-moldea ediren ahal izateko.

Abiadura azkarrean, hegaldaren puntatik luma bakarra den mendrena higitzeak bihurtu leuna eta hedatsua sortzen zuela ohartu zen. Haatik, ikasi aitzin, abiadura horretan luma bat baino gehiago higitzen zuelarik, fusil bala baten gisara biratzen zela jabetu zen... eta horrela, airetiko akrobaziak burutu zituen mundu honetako lehendabiziko kaioa izan zen.

Egun horretan ez zuen beste kaioekin betarik galdu kalakan, goiztiria iragan arte hegan egiten jarraitu zuen. Kiribilarena kausitu zuen, balantze astitsua, balantzea puntan, jaitsiera alderantzikaturik, kiribil erdia alderantzikaturik.

Jon Kaio Saldora itzuli zenerako, hondartzan jadanik, iluna zen erabat. Leher eginda eta zorabiatuta zegoen. Alabaina, eta ez satisfazio gutxirekin, lurreratzeko kiribil bat egin zuen jira-biran lurra jo baino doi bat lehenago. Aurkikuntza jakinen dutelarik, pentsatu zuen, zoratuko dira. Arrantza-ontzietara geure joan-etorri astuna eta geldia egin beharrean, bizitzeko arrazoia badugu! Orain bai, orain, bizitzak badu bere zioa! Geure ezjakintasunaren gainetik goratuko gara, adimena, trebetasuna, eta perfekzioa edirenen ditugu. Libreak izanen gara!

“Hegan egiten ikas dezakegu!”.

Xuxurlez eta distiraz betetako agiantza-urteak zetozen.

Jon lurreratu zenean, kaioak Kontseiluan bilduta zeuden, aspalditxotik bilduak bide ziren, izan ere, haren zain zeuden.

– Jon Salvatore Kaio! Jar zaitetz Erdian!

Kaio Nagusiaren hitzak zeremonia handikoetako ahotz solemneaz entzun ziren, ozenki entzun ere. Erdian jartzeak lotsa ala ohorea adierazten zuen. Ohoreagatik Erdian Kokatzea, kaioren artean, buruzagi nabarmenak seinalatzeko modua zen. “Bai horixe! –pentsatu zuen—. Noski, Janarietako Saldoa... goiz honetan: aurkikuntza ikusi zuten! Hala ere, nik ez dut laudoriorik nahi. Ez daukat aitzindari izateko asmorik. Kausitu dudana, guztiekin partekatzea ez beste da ene nahia, gure beha dauden horizonte berriak erakustea...”, eta urrats bat eman zuen aitzina.

– Jon Salvatore Kaio– erran zuen Nagusiak.

– Jar zaitetz Erdian, zure ahalkerako, zure gisakoen soaren pean!

Hesola batez jipoitu izan bailuketen sentitu zuen. Bere belaunek dardaratzeari ekin zioten, bere lumak kopatu ziren eta belarriek burrunba egin zioten. “Erdira, ene desondrarako? Ezinezkoa da! Aurkikuntza! Ez dute ulertzen! Oker dabilta! Oker dabilta!”

– ... bere arduragabekeria ausartarengatik –ahotsa altxatu zuen ospe handiz–, Kaio Familien tradizioa eta duintasuna bortxatzeagatik...

Desohoreagatik erdiratua izateak kaioen erkidegotik at gelditzea zekarren, han Labar Urrutietan bizitza bakarti batera erbesteratua izatea.

– ...egunen batean, Jon Salvatore Kaio, ikasiko duzu zein kario pagatzen den arduragabekeria. Bizitza ezezaguna eta ezagutezina da. Jateko sortuak gara, ahalik eta denbora gehien bizitzeko.

Kaio batek ez dio sekula ihardesten Saldoko Kontseiluari, baina Jonek bere ahotsa entzunarazi zuen.

Arduragabekeria? Anaia-arreba maiteok! –oihu egin zuen–. Nor da ideia bati jarraikitzen dion kaioa baino arduratsuagorik? Ba al dago helburu goi baten bila borrokatzen ari den kaioa baino arduratsuagorik? Mila urtetan arrainen buruak lortzearren borrokatu dugu, baina orain badaukagu bizitzeko arrazoi bat, ikasteko arrazoia, libreak... libreak izateko..! Emadazue aukera bat, utz nazazue erakuts diezazuedan kausitu dudana.

Saldoak harrizkoa zirudien.

– Anaia-arreben artekoa hautsi egin da–, adierazi zioten elkarri kaioek ozenki.

Denak akort, modu solemnez itxi zituzten belarriak eta bizkarra eman zioten.

Jon Salvatorek bakarrik igaro zituen gainerako egunak, alabaina, Labar Urrunetatik baino harantzago egin zuen hegan... Hegan eta hegan. Bakartasunean hegan egiteak ez zion urrikaririk ematen, beste kaioek hegan egitean senti zezaketen xarmari uko egiteak bai ordea; beren begien irekitzeari uko egin ziezaioten.

Egunetik egunera gero eta gehiago ikasten zuen. Ikasi zuen, abiadura bizi-bizian joanez gero, zut aerodinamiko batek lagundu ziezaiokeela ozeanoaren gainaldetik hiru metrora habitatzen zen arrain bitxia eta goxoa harrapatzen: harrez gero ez zituen arrantza-ontzien beharrik, ezta ogi gogorra ere bizirik irauteko. Kostaldeko haizean barrena bidatza finkatuz, gauean, airean lo egiten ikasi zuen, egunabarretik ilunabarrera ehun eta berrogeita hamar kilometro zeharkatuz. Bere barnearen kontrol berarekin, itsastar laino lodian zehar hegan egin zuen, eta haien gainean zeru argi eta liluragarriraino igo zen... beste kaioak lurrean zetzan bitartean, laino eta euripean murgildurik. Ikasi zuen goi haizeak gainditzen lehorrean barrena, mamutxa goxoenak bere buruari oparitzen zizkiolarik.

Saldo guztiarentzat erdiestea espero zuena, berarentzat lortu berria zuen; ikasi zuen hegan egiten eta ez zen damutu ordaindutako arriskuaz. Jon Salbatorek kaio baten bizitza laburraren zioak ediren zituen: asperdura, beldurra eta hira. Horiek horrela, behin horiek pentsamendutik uxatu ondoren, bizi luzea eta oparoa sumatu zuen.

Ilunabarrean heldu ziren. Jon planeatzen aurkitu zuten, baketiar eta bakarti bere zero maitean. Bere hegalen ondora alboraturiko kaioek aratz ziruditen, izarren argiaren irudiko, beren distira leuna eta lagunkoia zen gaueko zero garaian. Alta, hegan egitean erakusten zuten trebetasuna zen horren guztiaren ederrena; beren hegalen puntak abantzatuz, Jonen hegaletatik doi-doi zentimetro batera... konstanteki.

Fitsik erran gabe, Jonak aproba ipini zituen, kaio batek inoiz ez gaingidutako proba. Hegalak bihurtu zituen, orduko kilometro bakar batera gutxitu zuen abiadura, abantzu geldituz. Hegazti liluragarri haiek ere berea murriztu zuten, hertsu eran. Bazekiten astitsu hegan egiten.

Tolestu egin zituen hegadak, biratu zuen eta buruz beheiti bota zen orduko berrehun kilometrora. Bidaideek beren burua erortzen utzi zuten harekin batera, beheiti buruz amilduz, garbiki.

Azkenean, abiadura berean, Jon bira astitsu eta bertikal bat burutuz hegaldatu zen gorantz. Berarekin egin zuten bira, irribarretsu.

Hegazkada horizontala berreskuratu zuen eta isildu zen, hau erran aurretik:

– Oso ongi. Nor zarete?

– Zure Saldokoak gaituzu Jon, zure anaia-arrebak gara.

Hitzak irmo eta naroak izan ziren

– Zu gorago eramateko etorri gara, etxeraino eramateko ere.

– Ez daukat etxerik! Ez eta Saldorik ere. Erbesteratua nauzue. Orain Mendi handiko Haizearen abangoardian hegan egiten dugu. Ehun metro gehiago eta ezin izanen dut gorputz zahar hau haboro altxatu.

– Bai zera! Egin dezakezu, Jon. Zuk ikasi duzu eta. Etapa bat amaitu duzu eta beste bat hasteko ordua heldu zaizu.

Bere bitza guztian legez, orain ere, adimenak argitu zuen Jon Kaioren existentziaren instante hori. Arrazoia zuten. Goragotik hegaldatzeko gai sentitzen zen, etxera joateko tenorea iritsi zitzaion.

Azken begietako soa luzatu zuen zerura begira, hainbat eta hainbat irakatsia zion zilarrezko lur magnifiko hari.

– Prest nauzue– erran zuen azkenik.

Jon Salvatore Kaiok goiti egin zuen beste bi kaio leinurutsuekin, zeru ilun eta bikainean desagertuz.

Bigarren partea

Orduan, hauxe dugu zerua, pentsatu zuen, eta irribarrea behartu zuen. Zerua aztertzea berean sartzear gauden momentu justuan, ez da txit adeitsua kaio batentzat.

Kaio argitsu biekin Lurretik etortzean, hodeien gainetik eta erakuntza hertsian, bere gorputza haiena bezain distiratsua bihurtzen zela ikusi zuen.

Egiaz, Jon Kaio berbera han zegoen, gaztea, bere urrezko begien atzealdean izan zen betikoa, betiko Jon, hala eta guztiz ere, kanpoko itxura aldatuta zeukan.

Bere gorputzak kaio batek antzo sentitzen zuen, baina antzinakoarekin baino askoz libreago egiten zuen hegan. Arraioa! Esfortzuaren erdiarekin, lehenengo abiadura adina erdiesten dut, pentsatu zuen. Lurreko egun hoberenetan lortutako errendimenduaren bi halako, aise lortu ere!

Bere lumek diz-diz egiten zuten, zuri dizdizari zen oraingoa, zilar xaflak bezalako hegal leunak eta perfektuak. Ohitzen eta trebatzen hasia zen beraiekin, pozik, oraingo hegal berrietan potentzia sakatuz.

Orduko hirurehun eta berrogeita hamar kilometrotan bere abiadura gehiena –hegaldi horizontalean– erdiesten ari zela iruditu zitzaion. Laurehun eta hamarreen, bere ahalmenaren topera hegan egiten ari zela sentitu zuen. Oraingo gorputzarekin muga batera heltzeko parada zeukan, antzinako hegaldi horizontalean baino askoz zaluago joan arren, gainditzea biziki kostatuko litzaiokeen muga zen. Zeruan, pentsatu zuen, ez luke mugarik egon beharko.

Bat-batean hodeiak bereizi ziren eta bere lagunek oihu egin zioten:

– Lurreratze on, Jon –eta arrastorik utzi gabe desagertu ziren.

Itsasoaren gainean hegan egiten zuen, itsasbazter koskadun bati buruz. Labar arteko arranpetan kaioren bat edo beste tira ahala ari zen karraskan. Urrun, Iparrerantz, zerumuga berean, beste zenbaitek egiten zuten hegan. Horizonte berriak, pentsamendu berriak, galderak... Zergatik horren kaio gutxi? Paradisuak kaioz beterik egon behar luke! Eta, zer dela eta nekatu naizen supituki? Uste izatekoa zen kaioak ez direla zeruan unatu behar, ezta lo egin behar ere.

Non entzuna zuen hori? Lurreko bizitzaren oroitzapen zirriborrotsua agertu zitzaion. Lurra biziki ikasi zuen tokia izan zen, prefosta, baina xehetasunak gero eta nebulosoagoak egiten zitzaizkion; janaria lortzearren egindako borroka gogoratzen zuen apur bat, baita Erbesteratu izana ere.

Hondartzatik hurbil zegoen dozena kaio-multzoa agurtzera heldu zitzaion, bakar batek txintik erran gabe. Ongi-etorria jasotzen zuela sentitu zuen doi-doi, eta hura bere etxea zela. Egun paregabea izan zen berarentzat, egunsentia gogoratzen ez zueneko eguna.

Hondartzan lurra hartzeko bira egin zuen, airean instant bat geldituz hegadak eragiten zituelarik, ondoren, hondarretara jaitsi zen arinki. Beste kaioek ere lurreratzeari ekin zioten, hala ere, batek ez zuen luma bakar bat higitu ere. Haizearen kontra hegaldatu ziren, beren hegaldak distiratsuak zabaldurik, eta gero, berak nola jakin gabe, euren lumen makurdura aldatu zuten oinak lurrean geldiro finkatzen zituzten instant berean. Kontrol agerbide ederra izan zen, baina Jon akituta zegoen halakoak saiatzeko. Zutik, han, hondartzan, bere buruari hitz batto egiteke, loak hartu zuen.

Hurrengo egunetan Jonak sumatu zuen, hemen behialako bizitzan haina ikasteko zeukala hegaldiri buruz. Diferentzia nabarmen batez. Hemen bere pentsamoldeko kaioak zeudela. Izan ere, euretako bakoitzarentzat, bizitzaren xedea perfekzioraino iristea eta berau ukitzea zen, gehien maite zuten hobeintasuna, hots: hegan egitea. Txori apartekoak ziren, guztiak, eta orenak eta orenak ematen zituzten egunean ekinean hegan, aeronautika aitzinatua saiatur.

Denbora luzaz, iraganeko mundua ahantzi zuen Jonak, leku hura non Saldoak begiak hertsirik hegan egitearen pozari uko egiten zion, kaioek hegalak soilik bazkaria aurkitu eta lortzeko erabiltzen zuten lekua. Noizetik noizera, lipar batez baino ez, baina hura oroitzen zuen.

Bere irakastunarekin zegoela gogoratu zen horretaz, goiz batean, hondartzan atsedenaldira bat hartzen zuteino, hegal tolestuak jirabiraka ekinaldira bat burutu eta gero.

– Non daude gaineratikoak, Rafael?– galdegin zuen isilka, honako kaio hauek karraken eta txorrotxioen ordean usatzen zuten telepatia erosoari egokitua.

– Zergatik ez gaude guretariko gehiago hemen? Natorrenetik baziren...

...milaka kaio.

– Bazekiat. Baiezatu zuen Rafaelek, bere burua higituz...

...eman diezazukedan arrapostu bakarra Jon; milioi batean hi batto haizela. Guretariko gehienok astitsu abantzatzen dugu. Mundu batetik bestera ia-ia berdina igaro gaituk, nondik etorri garen segituan ahazteko, norantz gindoazen kontuan edukitzeke, oraingoa orain biziz. Ohartu al zara zenbat bizialdi gurutzatu behar izan dugun lehenbiziko ideia hau geureganatzeko? Hots, Saldoan manua atzematea edota jan eta gatazkatzeari baino zer edo zer gehiago badela bizitzan? Mila bizipen Jon, hamar mila! Eta gero, ehun bizipen gehiago perfekzioa deritzan zerbait badela ikasten hasi arte, eta are ehun gehiago bizitzaren helburua perfekzio hori aurkitzea eta islatzea dela konprenitzeko. Arau bera aplikatzen zioagu geure buruari orain: mundu honetan ikasi dugunaren bidez hautatzen diagu heldu zaiguna. Ez baduk deus ikasten, hurrengo mundua honen tankerakoa izango duk, berunezko zamak eta mugapen bertsuekin gaintzekoa.

Hegalak zabaldu zituen aurpegia haizetara bihurtuz.

– Baina hi, Jon –erran zuen–, horrenbeste ikasi huen ukaldi batez ezen ez duk mila bizialdi iragan behar izan, bizitza honetara arribatzeko.

Instant batez airean zeuden berriz, gogotik ziharduten. Alderantzizko posizioan hegaldatzeko biratzen zirenean, zaila zen orduan formazioa mantentzea, Jonek bere pentsamendua alderantziz taxutu behar zuenez gero, makurdura aldatu behar zuelako bere irakastunarekin batera harmonia zintzoan aldarazten.

– Saia gaitezen berriro –zioen Rafak behin eta berriz: ekin, ekin diezaiogun beste behin.

– Azkenean: ederki!

Eta orduan, kanpora begirako kiribildua ikasteari ekin zioten lehen aldikoz.

Gau batez, gaueko hegaldiak praktikatzen ez zituzten kaiok hondarrean geratu ziren, pentsaketan ari. Jon, bere kemen osoak lagundua, Kaio Nagusiari alboratu zitzaion, zeinaz esaten zen mundu honetatik harantzago partitzeaz zegoela.

– Txiang... –erran zuen, amiñi bat artega.

Kaio zaharrak samurki so egin zion. – Bai, ene semea?

Urteek indarra galdarazi ordez, Nagusiak berea handiagotua zeukan; Saldoko edozein kaiok baino gehiago eta hobeto egin zezakeen hegan, besteek ezagutu berri zituzten abileziak menperatzen zituen.

– Txiang, hau ez da egiazko zerua, ezta?

Nagusiak, Argizagiaren pean irri egin zuen.

– Ikasten ari haizela sumatzen diat, Jon.

– Ea, zer gertatuko da orain? Nora abiatuko gara? Ez al dago zerua bezalako leku bat?

– Ez, Jon, ez zegok holakorik. Zerua ez da leku bat, ezta aldi bat ere. Zerua perfektua izatean datza.

Isilik gelditu zen une batez.

– Hegan egiteko arin-arina haiz, ezta?

– Bi... biziki maite dut abiadura– erran zuen Jonek, harriturik, baina harro-harro; Nagusia horretaz oharturik.

Jon, zerua haztatzen hasiko haiz, abiadura perfektua haztatuko duan unean. Eta hori ez da orduko mila kilometrotan hegan egitea, ezta milioi batean, ezta argiak hartzen duen abiaduran ere. Edozein zenbaki xedea bilakatzen baita, eta perfekzioak ez dik xederik. Abiadura perfektua, seme maitea, bertan izatean datza.

Gaztigatu gabe, begi kliska batean, Txiang ur ertzean agertu eta desagertu zen, hogeit metro harantzago. Desagertu zen berriz ere, segundoko milaren batean Jonen besaburuaren ondora itzultzeko.

– Nahiko jostagarria da –erran zuen.

Jon liluratuta zegoen. Zeruaz galdegitea ahantzi zuen.

– Nola egin duzu? Zer sentitzen da hori egitean?

Noraino irits zaitezke?

– Gura duan lekura eta aldira joan haiteke –erran zuen Nagusiak. Nik nahi izan dudanean eta nahi nuen tokira joan nauk.

Itsasorantz begiratu zuen.

– Bitxia da. Bidaiatzeko xarmarengatik perfekzioa mesprezatzen duten karioak ez dira inora iristen, geldiro-geldiro aritzen dituk. Perfekzioa erdiesteagatik bidaiatzeaz ahazten direnak toki guztietara iristen dira, eta instantean. Oroit hadi, Jon, zerua ez da leku bat ezta sasoi ere, zeren eta lekuek eta sasoiak ezer gutxi diote. Zerua da...

– Hola hegan egiten erakusten ahal didazu?

Jon Kaiok dardara egiten zuen beste desafio baten konkistaren aitzinean.

– Jakina, baldin eta ikastea bada hire grina.

– Bai. Nahi dut. Noiz has gaitzke?

– Gura baduk, oraintxe has gitezke.

– Gisa horretara hegan egiten ikasi nahi dut –erran zuen Jonek, eta argi nabar batek distira egin zuen bere begietan–. Esadazu zer egin behar den.

Txiang poliki mintzatu zen, kario gazteari arretaz behatzen ziolarik.

– Pentsamendua bezain agudo eta existentzia dagoen edonora hegaldatzeko –erran zuen–, arribatu haizela jakintzat jo behar duk...

Txiangen ustez, sekretua zen Jonek bere burua ez ikustea preso antzo, gorputz mugatutako bat bailitzan, ehun eta lau zentimetroko hegoen luze-zabaleko gorputza, programazio errendimendu egoki bati uko eginez. Sekretua bere benetako izaera bizirik zegoela jakitea zen,

izkiriatu gabeko zenbaki baten bikaintasunez, espazioaren eta denboraren edozein lekuan eta aldi berean.

Jon ekin eta ekin aritu zen, egunak joan egunak jin, era basatian, egunabarretik gauerdi osteraino. Baina biziki ahalegindu arren, ez zen milimetro bat higitu ere aurkitzen zen lekutik.

– Ahaztu fedea! –esaten zion Txiangek behin eta berriz–. Hik ez huen, bada, hegan egiteko federik behar, hegaldia zer den konprenitzeko baizik. Gauza berbera dugu hau. Ekin iezaiok berriro ere.

Horrela, egun batez, Jon, hondartzan zutik, begiak hertsirik, bere baitarako bildurik, bat-batean eta ziztuaz ulertu zuen Txiangek esandakoa.

– To, egia! Kaio perfektua eta inongo mugarik gabekoa naiz!

– Eta pozarren hunkitu zen.

– Ondo da! –esan zuen Txiangek, haren ahotsetik tonu baikorra aireratuz.

Jonek begiak ireki zituen. Nagusiarekin gelditu zen, bakarrik, arrunt bestelako hondartza batean, zuhaitzak ur-ertzera bertaraino iristen ziren, goian bi eguzki biki horik bira egiten zuten.

– Azkenean ideiaz jabetu haiz –esan zuen Txiangek–, baina hire kontrola zerbait gehiago landu beharrean hago...

Jon zur eta lur gelditu zen.

– Non gaude?

Parajeak ez zion Nagusiari aparteko zirrarik eragin, eta ezentzunarena egin zuen.

– Zerua berde eta eguzkitzat izar bikoitza daukan planeta batean gaude, begi-bistan zegok.

Jonek oihu pozgarri bat jaurtiki zuen, lurra utzi zuenetik adierazitako lehendabiziko soinua:

– Hau egina dago!

– Baia? Bistan duk, Jon. Zertan ari garen jakinez gero, ondorioak onak dira betiere. Eta orain, hire kontrolaren gaira itzuliz...

Itzuli zirenean gaua zen. Beste kaioek, urrezko bere begietan so egin zioten Joni, adeitasunez, denbora luzaz plantaturik egon zenekotik desagertzen ikusi baitzuten.

Haien laudorioei eutsi zien minutu eskasean.

– Berria nauzue hemen. Hasi berria naiz. Ni naiz zuengandik ikasi behar duena.

– Hori egia denentz galde egiten diot neure buruari, Jon –erran zuen Rafaelek, haren ondoan, zutik–. Hamar mila urteotan, ez dut ikusi hik baino ikasteko beldur gutxiago daukan kaiorik.

Saldoa isil-isilik geratu zen, eta Jon aztoraturik nolabait ere.

– Nahi baduk, denborarekin has gaitzke lanean –erran zuen Txiangek–, etorkizunean eta iraganean barrena hegaldatzea lortu arte. Orduan, zailena hasteko gertu izanen haiz, kolosalena, ororen olgatuena. Prest izanen haiz gora egiteko, ontasunaren eta maitasunaren esangura ulertzeko.

Hilabete bat iragan zen, edo hilabete antzeko zerbait, eta Jonek agudo ikasten zuen, aiseki. Saiakuntza arruntek –eguneroko esperientzia– eskaini ziotena ikasteko azkarra izan zen beti, eta orain, Nagusi Berberaren ikasle berezia izanez, lumazko super-konputagailua ziratekeen bezala bereganatu zituen ideia berriak.

Azkenik, halere, Txiang desagertu zen eguna iritsi zen. Eleketan egona zen isilean lagun haiekin guztiekin: ikasteari uko ez egiteko erregutuz behin eta berriz, praktikatzen segitu behar zutela erranez, bizitza ororen perfektua eta ikusezinezkoa den printzipioa konprenitzen ahalegintzeko. Orduan, mintzatzen zeino, haren lumak gero eta distiratsuagoak egin ziren, harik eta era hain bereiziz dirdira egiten zuteneraino, non ezein kaiok ez zion so egiten ahal.

– Jon –erran zuen, eta hauek izan ziren azken hitzak–, segi ezak lanean maitasunean.

Berriz ere begiratu ahal izan zutenean, Txiang desagertua zen.

Egunak iragatearekin, Jon etorritako Lurrez gogoratzen zelarik, are eta harrituagoa zegoen.

Jakin izan balu han orain zekienetik hamarreko bat, ehuneko batto, bizitzak beste era bateko esangura izan zezakeen! Hondarrean geldirik zegoen eta, ea han behean kaioren bat ote legokeen haren mugak apurtzearen ahaleginetan galdetu zion bere buruari, hegaldia benetako esanahia ulertzeko, txalupa batetik eroritako otapur batzuk erdiesteko behar diren hegazkadez harago. Saldoaren aitzinean egia esateagatik Erbesteraturen bat egon zitekeen, ausaz. Jonek onezko bere ikasgaiak gero eta gehiago lantzen zituelarik, amodioaren sorkura ezagutzeko gero eta gehiago ziharduenean, Lurrera itzultzeko are desio handiagoa sentitzen zuen. Zeren eta, nahiz eta lehendik bakarzale izan, Jon kaio irakastuna izateko jaioa zen, eta bere maitasuna adierazteko manera –ikusita zeukan egiaren parte bederen– berau besteekin partekatzea zen, bere kabuz egia ikusteko aukeraren zain egongo zen kaioren batekin.

Rafael, pentsamenduaren erritmoaren arabera hegan egitera usatua eta gainerakoei irakastearen aldekoa, duda-mudan ari zen.

– Jon, behinola Erbesteratua izan hintzen. Zergatik uste duk, hire iraganeko kaioren bat adi izango duala orain? Badakik errefrauk dioena, egia dena: “Urrun dakusan kaioa goiti ari da”. Lehenago kideztat izan dituan kaioek karraka egingez ematen dute denbora lurrean, elkarren arteko gatazketan. Zerutik mila kilometrora zeudek. Eta hik diok, geldituta dauden lekutik zerua erakutsi nahi dieala! Jon, beha ezak! Beren hegalen puntak ikusteko gai balira behinik behin.

Gera hadi hemen. Kaio heldu berriak lagundu itzak, esan behar dieana konprenitzeko aski abantzuak dituk eta.

Lipar batez isilik gelditu zen, eta hauxe erran zion:

– Zer gerta zatekeen, Txiang antzinako bere munduetara itzuli izan balitz? Non egongo hintzen hi orain?

Azken puntua erabakiorra zen, Rafalek arrazoi zeukan: “Urrun dakusan kaioa goiti ari da”.

Jon gelditu zen eta lanari ekin zion heldu berriekin, denak azkar eta erneak ziren euren eginbeharretan. Baina gomuta zaharra itzuli zitzaion, ezin zuen bere burutik kendu Lurrean kaioren bat edo beste ikasteko asmoz egon litekeela, baita Erbesteratua zelarik Txiangen laguntza ukan izan balu zenbat gehiago jakingo lukeen orain pentsatzea ere.

– Rafa, itzultzeko beharrean nagok –erran zuen azkenean–. Hire ikasleak ongi zihoazek. Are gehiago, berriekin lagun hazakete.

Rafaelek hasperen sakon bat jaurtiki zuen, ika-mikan aritu izan gabe.

– Ene gogoan izan haut beti, Jon –izan zen esandako guztia–.

– Rafa, hau lotsa! –aurpegiratu zion Jonek–. Ez hadi kiskila izan! Zertan dihardugu egunero bada? Gure adiskidantza espazio eta denbora gaindituz gero, geure anaitasuna suntsitu egingen dugu! Alta, gainditu ezak espazioa eta Hemen bat ez beste geratuko zaiguk. Gainditu ezak denbora, eta Orain bat besterik ez zaiguk geratuko. Hemen eta Orain artean, ez ote gara noizbait ikusiko?

Rafael Kaiok barre algara laxatu behar izan zuen.

– Txori eroa –erran zuen xamurki–. Norbait badago Lurrean beste bati erakuts diezaiokeela nola ikusi daitekeen mila milietako urruntasunean, hi haiz Jon, Jon Salvatore Kaio. –Hondarrari so gelditu zen–: Adio Jon, lagun maitea.

– Adio, Rafa. Ikusiko dugu elkar.

– Horiek horrela, Jonek, pentsamenduan irudikatu zituen kaio saldo handiak iraganeko denboraren mugetan, eta bazekien jakin, aisetasun osoz, ez zela jadanik luma eta hezur bakarrik, libertatearen eta hegalaldiaren ideia perfektua baino, inolako mugapen gaberik.

Pello Paulo Kaio gaztetxoa zen oraino, hala ere, bazekin ez zegoela Saldo hartan beste txori bat bera bezain baztertuturik edota hain injustuki trataturik.

–Bost axola diotena– pentsatu zuen kexu, eta ikusmena goibeldu zitzaion Labar Urrutirantz abiatzen zeino–. Hegan egiteak badauka bere garrantzia, ez da gauerdiko nolanhiko hegadan oinarritzen! Edozein txori-arrainek egin... egin lezakete hori! Kaio Nagusiaren inguruan biraketa ttiki bat egin jostetan, doi-doia ari, eta Erbestera kondenatua naiz amen batean. Itsuak dira, akaso? Ez al dute ikusi nahi? Ezin ote dute imajinatu erdietsiko zuten loria errealki ikasteari ekinen bagenio?

Berdin dit pentsatzen dutenak. Hegaldatzea zer den agerian utziko diet, Bandidu bilakatuko naiz, hori bada euren nahikeria. Baina damuaraziko ditut...

Ahotsa bere buru barnetik jalgi zen, eta ezia izanik ere, horrenbeste izutu zuen non erratu eta airean itzulipurdika amaitu zen.

– Ez hadi haiekin bortitza izan, Pello Kaio. Hi egotzirik izatean, beste kaioek euren buruei baino ez dietek min egin, egun batean konturatuko dituk horretaz; egun batean hik dakusana ikusiko ditek berek ere. Lagun itzak hori konprenitzen eta izan hadi barkabera.

Haren eskuin hegalararen puntatik zentimetro batera mundu honetako kaio dirdiratsuenak egiten zuen hegan, esfortzu egiteke planeatzen, luma batto higitu gabe, abantzu Pelloren abiadura maximoan.

Alditxo batez kaosa nagusitu zen txori gaztearen baitan.

– Zer gertatzen da? Erotu egin al naiz? Hilik ote nago? Zer da hau?

Ahotsak apal eta naharo jarraiki zuen haren pentsamenduaren barnean, arrapostu bat exigituz.

– Pello Paulo Kaio, hegan egin nahi al duk?

– BAI, HEGAN EGIN NAHI DUT!

– Pello Paulo Kaio, horrenbeste maite al duk hegan egitea ezen barkatuko dituala Saldoko kideak? Lanari lotuko al haiz, eta ikasiko al duk eta itzuliko haiz egun batean konprenitzen laguntzeko?

Gezurretan aritzeak alferrik zirudien izaki trebe eta aparteko harekin, Pello Paulo oso harrotuta eta hunkitua izanagatik ere.

– Bai, nahi dut –baietsi zuen apalki.

– Orduan, Pello –erran zion kreatura argitsu hark, ahots xamurrean– has gaitezen Hegalaldi Horizontalarekin...

Hirugarren partea

Jonek ezari-ezarian jiraka ziharduen Labar Urrutietan gaindi, beha zebilen. Pello Kaio gazte bortitz hura kasik perfektua zen ikasle gisa. Azkarra zen, eta arina, eta airean bizkorra, eta baitezpadakoa zena, gaitzeko nahikaria zeukan hegan egiten ikasteko!

Bazetorren hor orain, bertikaltasunetik atereaz, orroz, zirriborrotsua eta urdindua, orduko berrehun eta hogeit hamar kilometrotako abiadura, bere irakastuna gaintuz, bolido bat bailitzan. Bat-batean, artazika hasi zuen, pikoan, zakarki, hamasei puntura ailegatu zen, bertikal eta geldiro, puntuak ahots ozenez zenbatzen zituelarik.

... bederatzi...hamar...ikusten-Jon-bukatzen-ari-za-it-aire-a-ren abiadura...hamaika... Geldialdi-perfektuak-eta-zehatzak-nahi-ditut-zeureak-bezalakoak...hamahiru...hiru-puntu-hondar-etara...egin...hamalau...aaakk!

Buztanaren bihurketa arras gaizki joan zitzaion Pellori, bere sumindua eta errabia zirela kausa. Gain-buruka joan zen bizkarra emanik basati baten antzo, jaitsiera alderantzikatuan hertsu zuen bere burua, bere irakaslea zegoen nibeletik hogeita hamar metro azpitik hatsanka edo hatsesuka.

– Denbora galtzen ari zara nirekin, alferrik da, Jon! Arrunt zozoa nauzu! Zakil kirten galanta! Ekin eta ekin aritu arren, ez dut sekula deus lortuko!

Jon Kaiok gainbegiratu bat bota zion, baita onetsi ere.

– Hain baldarki aztoratzen haizen bitartean, ziur ez duala lortuko. Pello, sarreran orduko hirurogei kilometro galdu egin duk! Emeki joan behar duk! Tinko, baina emeki. Gogoratzen al duk?

Kaio gaztearen nibel berara jaitsi zen.

– Saia gaitezen batera orain, erakuntzan. Aztoratzearena kontuan har ezak. Sarrera gozo eta leuna dukek, aise.

Hiru hilabeteren inguruan, Jonek bazituen beste sei aprendiz gehiago, denak Erbesterauak, kuriositateak joak hegaz egiteko modu berri horrengatik, aire garbi berriak sentitzearren.

Hala izanik ere, errendimendu on batzuen erdiesteari dedikatzen ziren errazago, arrazoi ezkutuko hori ulertzeari baino.

– Gutariko bakoitza Kaio Nagusiaren ideia bat da egiazkiro, libertatearen ideia mugagabe bat – erran ohi zuen Jonek hondartzan arratsaldeetan –, eta goi hegazkadaren prezisioa geure egiazko izatearen adierazpeneraino hel gaitezen urratsa da. Mugatzen gaituen oro errefusatu beharrean aurkitzen gara. Horixe dugu praktika hauen guztien zioa, goi eta apal abiaduran, akrobazia hauen...

...eta ikasleak lokartzen ziren, leher eginak, egun osoa jardun ondoren. Maite zuten praktikatzea ernegarria eta bizkorra zelako, eta ikasteko zuten gogoia eragingarria zitzaielako, gogoia ikasgairik ikasgai gehitzen zitelarik. Baina, haietako batek ez zuen oraindik ere sumatzen, ideien hegaldada lumen eta haizearen hegaldada bezain egiazkoa izan zitekeela, ezta Pello Paulo Kaio ere.

– Zuen gorputz osorik, hegalden puntatik puntara –erranen zukeen Jonek beste behin iraganean– zeuen pentsamendu besterik ez da, ikusbera den forma batean. Eten ditzagun pentsamenduaren kateak eta gorputzaren kateak hauskorak eginen zaizkigu.

– Erranak erran, bere hitzak elezahar atseginak bailiran jasoak izaten ziren beti, eta haiek lo egiteko premia gorrian zeuden.

Hilabete bat igaro baino ez zen eta Saldora itzultzeko tenorea zutela, erran zuen Jonek.

– Ez gaituzu prest oraino!– erran zuen Henri Kalvin Kaiok–. Ez gara onartuak izanen! Erbesteratuak gara! Zertarako bizi, baztertuak izanen garen mundu batean? Ez dea hola?

– Noranahi joateko aske gara, baita garena izateko libreak ere –ihardetsi zuen Jonek–. Hondarretik altxatu zen, Ekialderantz jiratuz, eta Saldoaren herrialderantz zuzendu.

Anartean, larrialditxo bat antzeman zen ikasleengan, Saldoaren legeak ez baitzuen onesten Erbesteratuen itzulera, eta legea ez zen bortxatua izan hamar mila urtetan behin ere. Legeak gelditzeko zioen. Jonek, ostera: Abian zaitetze! Eta zegoeneko itsasoan barrena ziharduen. Ikasleak igurikatuz segitzekotan, hark berak bakarrik buru egin beharko ziokeen Saldo etsaiari.

– Bon, Saldoaren partaideak ez badira, ez dugu Legea obeditzerik, ezta? –erran zuen Peiok, nahasi xamar–. Gainera, gatazka badago, hara joateko behartuta gaude.

Eta horrela gertatu zen, gertatu zenez. Goiz hartan, haietako zortzi mendebaldetik azaldu ziren, diamante biko erakuntzan ia-ia hegaletako puntak elkar jotzen. Orduko berrehun eta bost kilometrora Saldo Kontseiluaren hondartzari buruz hegan egiten zuten, Jon buru izaki, Peio haren albora hegaldaka emeki-emeki; Henri Kalvin aldi berean ezkerretik ausarkiro borrokatzen. Orduan, talde osoak eskuinerantz jo zuen astiro, txori bakarra bailitzan... ..horizontaltasuna eta bertikaltasuna... txandakatur, beren gorputzen gainean haizea orroka lagun zutelarik.

– Saldoko bizitzan usu entzuten ziren txorrotxio eta garrasiak, Erbesteratuen itzulerarekin tanpez eten ziren, eta zortzi mila kaio anodinoek begi arretatsuz so egiten zieten. Zortzi txoriak –bata bestaren gibeletik– bederaka igo ziren, abilki, kiribil bat egin ondoren, bira zabal bat burutuz pausatu ziren hondarren gainean ezari-ezarian. Orduan, gertatutakoa eguneroko zeregin arrunta bailitzan, Jon Kaiok hegaldiari buruzko kritikari hasiera eman zion.

– Hasteko –erran zuen, gaitzitua– bat egin momentura berant pixka bat arribatu zarete denak...

Erbesteratuen etorrerak Saldoa inarrosi zuen. Txori horiek lheslari dira! Eta itzuli bide dira! Eta hori... .. hori ez da zuzena! Kaioen harridurak Peiok auresandakoa aienatu zuen, hau da, liskar eginkor batentzako abagunea.

– Beno, ados: Erbesteratuak dira –erran zuten gaztetxoren batzuek–, baina, erran ezazue, non ikasi dute horrela hegan egiten?

Abantzu oren bat iragan zuen Nagusiaren Hitza Saldo guztira hedatu zenerako: ez egin kasurik. Erbesteratu bati hitza zuzentzen diona Erbesteratua bilakatuko da. Erbesteratu bati begiratzen dionak Saldoaren Legea hausten du.

Une horretatik, Jon, bizkar eta bizkar luma gris nasaik inguratu zuten, zeina, antza denez, egintza horrek ez zuen sobera hunkitu, doi-doi Kontseiluko Hondartzaren gainean atondu zituen bere ikasleak helburu gutziatsuen lortze lanetan.

Martin Kaio –oihu egin zuen, hegan egiten zueino– hegaldi astitsua ezagutzen duala diok! Proba ezak lehenik eta mintza hadi gero. Hegan egik!

Eta gisa horretan, gure isil eta tipi Martin Alonso Kaio, bere kautan harriturik –bere irakastunaren pikoen eraginpean–, artista erresultatu zen hegaldi astitsuan. Haizetxo arinean, bere lumak kurbatzera erdietsi zuen gora egin artio, eragite minimoa burutu gabe, hondarretatik hodeietaraino, eta beheiti berriz ere.

Gauza bera gertatu zitzaion Karlos Rolando Kaioari, zeina zortzi mila eta berrehun metroetako altueran Mendiko Haizearen Handiari buruz hegaldatu zen, zoraturik eta kontent eta hotzaz urdinduta, eta biharamunean are gorago iristeko prest.

Peio Kaiok, nehork bezala akrobaziak maite zituenak, lortu zuen bere erorkera “orbel gisan” egitea, hamasei puntuetako erorketa, eta biharamunean bere lumen zuritasun paregabea erakutsiz goren punturaino ailegatu zen jirabiraka arituz, begietako so herabeen eta lehiatien artean bere eginkizunak hirukoizten zituelarik.

Jon konstanteki zegoen ikasleekin, erakusten, presionatzen, gidatzen, iradokitzen. Gauaren eta hodeien eta ekaitzen aurka hegan egin zuen haiekin, hegan egiteko plazer soilarengatik, Saldoan lurrean miserableki moltsokatzen zen bitartean.

Hegalaldia amaitu eta, ikasleek atsedena hartzen zuten hondartzan eta hurbiletik entzuten zioten Joni. Bazeukan honek aise konprenitzen ez zituzten zenbait ideia eragabeak, baina bazeuzkan ere onak eta konprenigarriak.

Pixkanaka, gauez, ikasleen inguruan beste zirkulu bat eratu zen; adi-adi eta jakinguraz zegoen kaio zirkulu bat, orduak eta orduak, ikusgura barik, ezta ikusiak izateaz, artean arturratu gabe, desagertzen zirela.

Haien itzultzea gertatu eta hilabete batera, Saldoko lehendabiziko kaioak marra gurutzatu zuen, hegan egiten erakutsi ziezaiola eskaka. Hura egitean, Terrence Lowell Kaio kondenatua izatera pasatu zen, Erbestek markaturik eta Jonen zortzigarren ikaslea.

Hurrengo gauean, Eztebe Lorenzo Kaio etorri zen Saldotik, kordokan, bere hegal ezkerre hondarretik arrastaka, Jonen oinetara erori arte.

Lagun nazazu –erran zuen, ozta-ozta, hiltzorian diren bezala mintzo– edozer baino gehiago mundu horretan, hegan egin gura dut...

Hator, bada –erran zuen Jonen–, igo gaitzen, utz dezagun lurra gibelean eta has dezagun.

– Esteban Kaio, hi heu izateko libre haiz, hire benetako izaera azaltzeko, hemen eta orain, inolako trazarik gabe. Kaio Nagusiaren legea duk, den Legea.

– Hegan egin dezakedala, diozu?

– Libre haizela esaten diat.

Eta besterik gabe, Eztebe Lorenzo Kaiok hegalk zabalak zituen, esfortzu larregi egiteke gau ilunerantz altxatu zen. Bere deiadarrak –indarrak batuz eta berrehun metroetako altueratik– bere lozorrotik atera zuen Saldoa.

– Hegan egin dezaket! Entzun! HEGAN EGIN DEZAKET!

Egunabarrean ia mila hegazti zeuden ikasleen zirkuluaren inguruan, jakinguraz behatzen zioten Ezteberi. Ez zitzaien axola ikusiak izatea edo ez, adi-adi zeuden, Jon Kaioren hitzak konprenitu nahian.

Gauza txit errazak aipatu zituen: ontsa dela kaio batek hegan egitea; libertatea izatearen beraren esentzia dela; libertatea hori eragozten duen oro eliminatu beharrean gaudela, erritual edo sineskeria izan edo edozein mugaren itxurazkoa izan ere.

– Eliminatua –erran zuen ahots batek multzotasunean– Saldoaren legea izanik ere?

– Egiazko lege bakarra libertatera bideratzen duena da –erran zuen Jonek–. Besterik ez.

– Nola nahi duzu, zu hegaldatzen zaren modura guk egitea? –zioen beste ahots batek– . Zu berezia zara, ongi hornitua, edozein hegazti edo txori baino gehiago.

– Beha ezazue zertan diren Peio, Terence, Karlos Rolando, Antton Mari! Bereziak, mardulak eta dibinoak ote dira? Ez zuek baino gehiago, ez ni baino gehiago. Ezberdintasun bakarra da, egiatan bakarra, egiazki zer diren hasi dutela konprenitzen eta praktikara eramaten saiatzen direla.

Haren ikasleak, Peio salbu, asaldatu ziren. Ez ziren ohartu horixe bera egiten ari zirela.

Egunik egun, areagotzen zen galdegitera zetorren multzoa: galdegitea, idolatratzea, gutxiestea...

– Kaio Nagusiaren berberaren semea ez ote zaren, diote Saldoan –kontatu zion behinola Peiok Joni, Abiadura Aitzinatuari buruzko praktiken ondoren–, zu zure garaiari mila urte aitzinatua zaude, horixe da kontua.

Jonek hatsa hartu zuen. Txarto ulertua izatearen ondorioa dut hau, pentsatu zuen. Deabru izendatzen dizute ala Jainko.

– Zer deritzok horri, Peio? Geure garaiari aurrea hartu diogu noizbait?

Isiltasun sakon baten ondoren...

– Bon, hegan egiteko manera hau ikasi nahi duenaren esku izan da, hots, ediren nahi duenaren gertu. Eta horrek ez du deus ikustekorik denborarekin. Onenean, apika, modari aurrea hartu diogu, kaio gehiengoaren hegan egiteko manerari.

– Zerbait bada hori –erran zuen Jonek, beheiti buruz tiratuz planeatzeko asmoz–. Hori “geure garaiari aitzina hartu diogula” erratea baino hobeto da.

Aste bat doi-doi beranduago suertatu zen. Peio ikasle andana bati hegalaldiaren arauak –abiadura bizian– azaltzen entseatzen ari zen. Lau mila metrotik egindako xut bertikal batetik atera berria zen –hondartzatik zentimetro eskas batzuetara, tximist baten antzera–, txoriño bat bere lehen hegalaldian ari zen unean, bere amari deika, bere bidean planeatu zuen alditxoan justu-justu orduantxe. Istant batean, txori gazteari itzuri nahian, Peio Pablo Kaiok ezkerretara jo zuen bortizki, orduko hirurehun kilometro baino gehiagotan, eta granitozko arroka sendo baten kontra jotzen amaitu zen.

Arroka beste munduetarantz irekitzen den ate erraldoia eta gogorra bailitzan suertatu zitzaion. Kolpearekin batera sentitu zuen izualdia itzela izan zen, eta itzala egin zen, ilunpean ibili zen noraezean, eta gero, zero arraro batean galdutzat ikusi zuen bere burua, arraroa, ahazten, oroitzen, ahazten; beldurti eta triste eta damaturik; izugarri damaturik.

Jon Salvatore Kaio ezagutu zuen egunean bezalaxe heldu zitzaion ahotsa.

– Arazoa, Peio, geure mugak egonarriz eta ordenan gainditzean datza. Gure programan ez gara arroketa zehar gurutzatzen entseatzen hain goizik.

– Jon! –Kaio nagusiaren semea bezala deitua ere bai– erran zuen irakastunak, lazki.

– Zer ari zara hemen? Arroka hori! Ez nago... ez nintzen... hila?

– Tira Peio, aski duk. Pentsa ezak. Nirekin mintzatzen ari bahaiz orain, begi-bistan dago ez haizela hilik, ez dea horrela? Hire kontzientzia maila aldatzea lortu duk, supituki gainera. Orain hautatzea dagokik. Geldi haiteke hemen eta maila honetan ikasi –eta jakinen gainean egon hadin, utzitakoa baino altuago samarra duk–, edo itzuli eta Saldoan lanean jarraitu. Nagusiak irrikitzen zeudean honako hondamendi hau ikusteko eta haien gustua hain goxo egitean zeharo harrituak utzi dituk.

– Bistan da nahi dudala Saldora itzuli. Talde berriarekin orain hasia nauzu!

– Oso ondo, Peio. Norberaren gorputza ez dela pentsamendu aratza baino esaten genuen, oroitzen al haiz?

Peiok burua inarrosi zuen, hegalak zabaldu zituen, begiak ireki, eta arrokaren oinean aurkitu zen, han bildutako Saldo guztiaren erdian. Higitzen hasi zenean, hots handiko txilioak eta deiadarrak jalgi ziren multzotasunetik.

– Bizi da! Hilik suertatu zenak bizirik jarraitzen du!

– Hegalaren puntarekin ukitu zuen! Birbiztu zuen! Kaio Nagusiaren Semea!

– Ez! Berak ukatzen du! Deabru bat da! DEABRUA! Saldoa deuseztatzera jin zaigu!

Lau mila kaio bazeuden multzotasunean, gertatutakoak ikaratuak, eta DEABRUA! garrasia enbata haizea bailitzan gurutzatu zen haien artean. Aurreratzeari ekin zioten, suntsitzeko asmoz, mokoak zorroztuak eta begiak distiratsu zeramatzatela.

– Peio, eta abiatuko bagina, ez zaik hobe iruditzen? Galdetu egin zuen Jonek.

– Bon, nik ez nituzke oztoporik ipiniko baldin eta...

Istantean kilometro bat harantzago topo egin zuten, Saldoaren moko harrabotsak hutsean itotzen zihoazela.

Zergatik izanen da –bere buruari galdegin zion Jonek, kontrariaturik– ez dagoela ezer baino zailagoa mundu honetan, txori bati libre dela konbentzitzea baino?

Eta areago oraindik, bere kautan froga lezakeena noiz edo behin praktikatzeari ekinen balio? Horren zaila ote da?

Peioren begiek, lekuz aldaketa zela eta, ñir-ñir egiten zuten oraino.

– Zer egin duzu orain? Nola iritsi zara honaino?

– Multzotik aldendu nahi huela erran huen, ezta?

– Bai! Baina, nola egin?

– Jardunean Peio, dena bezala, ariz ikasten duk.

Biharamunean, Saldoak ahantzia zuen bere zorotasuna, Peiok ez ordea.

– Jon, gogoan duzu aspaldian erran zenuena? Saldoa askietsi behar genuela, harengana itzultzeko haina eta ikasten laguntzeko?

– Jakina.

– Bada, ez dakit nola estima eta maita dezakezu zu hiltzen entseatzen ari den txori andana hori.

– Tira, Peio! Hik maite duana ez da hori. Ez ditiagu gorrotoa eta gaizkia maitatu behar. Halarik ere, ekinaren ekinez benetako kaioa ikustera helduko haiz, bakoitzarengan dagoen ongia ikustera eta haiek hik bezala senti dezaten lagunduko diezu. Amodioaz mintzatzean horixe adierazi nahi diat. Atseginez hartuz gero, txit erakargarria duk. Gogoratzen dit, adibidez, txori urguilutsu bat, Peio Pablo Kaio zeritzana. Erbesteratu berria, Saldoaren aurka borrokatzen bizia uzteko prest. Hasia zuen jadanik bere infernua eta mikatza eraikitzen Labar Urrutietan. Hala ere, hementxe dugu orain, bere zerua eraikitzen eta Saldo guztia norabide berean gidatzen.

– Ni, gidari? Nik gidatzen, erran nahi duzu?

Zu zara irakastuna hemen. Zu ez zara joaten ahal!

– A, ez? Zer uste duk, ez direla beste Saldoak, beste Peio batzuk, honez gero argiaren bidean doan saldo hau baino premiatsuagoak direnak irakastun batena? Ni? Jon, kaio simple bat nauzu, eta zu zara...

...Kaio Nagusiaren Seme bakarra, jakina?

Jonek itsasorantz begiratu zuen, zizpuruka

– Ez nauk dagoeneko behar. Hire buruaren xerka jarraitu beharra daukak, amiñi bat haboro egunez egun, Peio Kaio mugagabe eta benetako hori. Bera duk irakastun bakarra. Bere burua endelegatu beharrean hago, eta praktikara eraman...

Aldiunetxo bat beranduago Jonen gorputzak dardarikatu zuen, dirdiratsu, gardentasunak emaro gailentzen zuelarik.

– Ez utz entzun daitezen zurrumurru leloak nire buruz, edo Jainkotu nazaten utzi ere ez. Ados, Pello? Kaioa naiz. Eta menturaz... hegan egiteak zoratzen naik.

– JON!

– Gaixo, Pello. Ez duk hire begiek islatzen dutena sinetsi behar. Mugak ez beste erakusten dituzte. Hire endelegamenduekin so egin ezak, dagoeneko dakiana idoro ezak, eta hegan egiteko era kausituko duk.

Zohardia itzali egin zen. Jon Kaio airean aienatu zen.

Denboraldi bat iragan eta, Peio Kaiok bere burua espazioa gainditzen behartu zuen, eta ikasle andana berri batekin oldartu zen, bere lehen ikasgaia hasteko gutiziatuak.

– Hasteko –erran zuen bihozminez–, kaioa libertatearen ideia mugagabea dela konprenitu beharrean zarete, zuen gorputz osoa, hegal puntatik puntara, zeuen pentsamendua baino ez da.

Gazteek harriduraz elkar begiratu zuten. To! Pentsatu zuten, ez dirudi hori arau on bat kiribil bat burutzeko.

Pellock zizpuratu zuen eta berriz hasi zen.

– Atx!... ea... biziki ontsa– erran zuen, eta zorrozki so egin zien.

– Hegaldi Horizontalekin has gaitezen.

Eta entseatzen, bat-batean konprenitu zuen, egiazkiro, bere laguna ez zela Pello berbera baino dibinoagoa izan.

– Ez dea mugarik, Jon?– pentsatu zuen. Bon, zure hondartzan agertuko naizen eguna iritsiko da, eta hegalaldiari buruzko gauza pare bat erakutsiko dizut!

Eta nahiz eta ikasleen aitzinean borondate onez azaldu nahi zuen, Pello Kaiok zinez eta benaz ziren bezalakoak ikusi zituen, momentutxo batez, atsegin zuena baino gehiago ikusi zuena maitatu egin zuen. Ez al dago mugarik, Jon?, pentsatu zuen, eta irri egin zuen. Aprestuz bere arineketaldia hasia zen.

Badago bere arau propioei kasu egiten diena
seguru sentitzen baita, (bizi delako)
plazer berezia kausitzen duena
zerbait ongi egitean;
badago bere begiek ikusten baino
zerbait gehiago hautematen duena;
badago jan eta erosi baino
Hegan egitea nahiago duena;
horiek guztiek adiskidantza iraunkorra egingen dute
Jon Salvatore Kaiorekin.
Izanen dira baita ere, Jon Kaiorekin
leku xarmant eta toki arriskutsuetatik
–askatasun argitsukoak–
hegaldatuko direnak.
Bai batzuek bai besteek
sekula ahantziko ez duten esperientzia biziko dute.